

GOBERNU BATZARRA

2015. 11. 16

Alkatea:

Olatz Peón Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Beh. Beh. Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko azaroaren hamaseian 08:00tan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.- Langunea Tolosaldean 2015.

3.-Diru sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko oinarriak.

4.-Abegi eta udalaren arteko hitzarmenaren proposamena.

5.- Etxez etxeko zerbitzua. Hitzarmenaren luzapena.

6.-Tolosako Udalerrian arrisku egoeran dauden gazte eta adingabeen kaleko hezitzaileen esku hartze zerbitzua. Hitzarmenaren luzapena.

7.- Gazterriako dirulaguntza banaketa.

8.-34/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko azaroaren 9an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Langunea Tolosaldean 2015.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2015eko martxoaren 25ean egindako bilkuran (2015eko martxoaren 31n argitaratu zen EHAOn).

Tolosako Udalak 366.333 euroko programa bat aurkeztu zuen 2015eko ekainaren 22an.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusianaren ebazpenaren bidez Tolosako Udalarari 366.060,59 euroko dirulaguntza eman zitzaion.

Ildo horretatik, hainbat enpresek interesa azaldu dute “Langunea Tolosaldean 2015” programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatuzko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen diren enpresei dirulaguntza hauek ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko diren hitzarmenean jarritakoak betetzen badituzte.

| Enpresa | Kontratu kopurua | Kontratu iraupena | Lanaldia | Langilea | Dirulaguntza |
|-----------------------|-------------------------|--------------------------|-----------------|---|--|
| Belamendi | 4 | 6 hilabete | Osoa | JF.J.J. M.A.C.P. J.E.I. J.A.O.Z. | 6.000,00 6.000,00 9.000,00 9.000,00 |
| Testone Hojas | 1 | 6 hilabete | Osoa | S.M.F. | 8.262,45 |
| Lizarribar oinetakoak | 1 | 6 hilabete | Osoa | G.A.B. | 6.000,00 |
| Basajaun liburudenda | 1 | 6 hilabete | Osoa | A.A.C. | 5.762,79 |
| Gureak | 1 | 6 hilabete | Osoa | L.N. | 5.101,14 |
| Irabi elkarte | 1 | 6 hilabete | Osoa | M.L.B. | 6.000,00 |
| Casa Julian | 1 | 6 hilabete | Osoa | L.E.Z. | 6.000,00 |

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Enplegu departamentuari, Kontuhartzailetzari eta interesatuei.

3.- Diru sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko oinarriak.

Diru sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko oinarriak ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aurkeztutako oinarriak eta eranskina onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

4.- Abegi eta udalaren arteko hitzarmenaren proposamena.

Gaia erabaki gabe geratu da, Foru Aldundiarekin hitz egin arte.

5.- Etxez etxeko zerbitzua. Hitzarmenaren luzapena.

Ilarki Elkargoak udal honetako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren helburuak ondo bete dituela ikusita eta udalarekin sinaturik duen etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren luzapena egitea proposatu dela Gizarte Politikako batzordean, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Luzatzea Udalak Ilarki Elkargoarekin sinaturik duen hitzarmena, ezarrita dauden klausulen arabera.

BIGARRENA.- Luzapena izatea 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31arte.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ilarki Elkargoari, kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikako departamentuari.

6.- Tolosako Udalerrian arrisku egoeran dauden gazte eta adingabeen kaleko hezitzaileen esku hartze zerbitzua. Hitzarmenaren luzapena.

Gizarte Politikako batzordeak proposatu du, programa egoki bete duenez, "Arriskuan dauden adin txikikoen"ari dagokion kontratua luzatzea Nura Gizarte Elkarteari.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Nura elkartearekin sinatu zen hitzarmena luzatzea, ezarrita dauden klausulen arabera.

BIGARRENA.- Luzapena izatea 2016ko urtarrilaren 21etik 2017ko urtarrilaren 20a arte.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Nura elkargoari, Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

7.- **Gazteriako dirulaguntza banaketa.**

Gazteriako dirulaguntzen banaketarako erabili den prozedura eta irizpideak aztertu dira, baita ere Kultura, Festak eta Gazteria batzordean. Aplitatutako puntuaketaren ondorioz talde bakoitzari egokitu litzaiokeen diru kopurua ere zehaztu da.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Kultura, Festak eta Gazteria batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen den banaketa onartzea:

| | |
|------------------|-----------------|
| ATSEDENA | 1.328,40 |
| ITAKA ESKOLAPIOS | 2.361,60 |
| GOROSTI | 1.003,68 |
| MENDU | 1.623,60 |
| KAZKABARRA | 1.682,64 |
| GUZTIRA | 7.999,92 |

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Gazteri zerbitzuari eta interesatuei.

8- **34/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **34/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **47.298,85** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 34/2015 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:30 tan.

ALKATEA

IDAZKARIA